

## "Erotika 3.0: zibersexua, sexting-a eta intimitatea pornografia bihurtzea nerabezaroan" ikastaroaren balorazioa

**Gazteen Euskal Behatokiak urria eta azaroan zehar formakuntza planeko beste ikastaro bat antolatu du**


'**Erotika 3.0: zibersexua, sexting-a eta intimitatea pornografia bihurtzea nerabezaroan**' ikastaroa antolatu du Gazteen Euskal Behatokiak urria eta azaroan zehar. Formazio honen helburu nagusia da, bereziki arlo sexual eta erotikoa Internetek eta harremanak izateko eta komunikatzeko zenbait baliabide digitalek nerabeen adierazteko, komunikatzeko eta harremanak izateko eran zer nolako eragina duten ezagutzea arriskuak gutxitzeko asmoz.

Ikastaroa **Ane Ortiz Ballesterosek** eman du, Sexologian aditua (InCiSex) eta Magisteritzan diplomaduna. **EMAIZE** Sexologia Zentroan langilea.

**13 lagunek** partehartu dute ikastaroan, honako lanbide-profilak dituztenak:

- Gehienak, % 85, gazteen arloko langileak (gazte informazioa, udalak, foru-aldundiak, gazteen elkarteak, gizartean eta hezkuntzan esku hartzen duten taldeak eta beste erakunde batzuk) izan dira.
- Beste % 15 hezkuntza arautuari lotutako lagunak izan dira.

Ikastaroak 15 orduko iraupena izan du, hiru egunetan banatua eta ikasleen batez besteko balorazioak honako hauek izan dira (0tik 10era bitarteko eskalan):



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, ikastaroan parte hartu dutenen artean egindako balorazio inkestetako emaitzak oinarri hartuta*